

Zenbakizko adierazpenen ortografia I



Zenbaki errromatarrak

- Hurrenkera adierazteko erabili ohi dira. Baina gaur egun oso gutxi erabiltzen direnez, ez dira oso argiak; horregatik komeni da zenbaki arabiarrak erabiltzea hogeitik aurrerako zenbakietan.
- Letra larriz idazten dira beti. Salbuespen bakarra dira zerrenda bateko atalak edo elementuak zenbatzeko erabiltzen direnak: horiek xehez jartzen dira.

- Testuinguru hauetan erabiltzen dira:
 - Monumentu edo plaka oroigarrietan, urtea adierazteko.
 - Gertakariak adierazteko:
 - I. Mundu Gerra
 - Aldizkako argitalpenetan, argitaratzen hasi zenetik ale bakoitzari dagokion urtea adierazteko.
 - Mendeak adierazteko:
 - XXI. mendea
 - Dokumentuetan:
 - Euskadiko IV. Osasun Plana
 - Dinastietan, izen edo deitura berekoen ordena adierazteko:
 - Retegi II.a, Juan Pablo II.a, Felipe VI.a

- Kongresu, txapelketa, jaialdi eta abarren izendapenetan.
- Liburukiak, eranskinak, zatiak, liburuak, kapituluak edo obra baten beste edozein atal zerrendatzean, eta antzerki-lanen ekintzen edo eszenen zenbaketan.
- Lan baten atariko ataletako orrialdeak zenbatzean (hitzaurrea, sarrera ...), eduki zentralari dagozkion orrietatik bereizteko.
- Espainiako errepide nazionalak identifikatzeko:
N-I, E-III

Zenbaki arabiarrak

a) Kardinalak

Multzo bateko elementu kopurua adierazteko erabiltzen dira.

- Hitz bakarrean idazten dira:
 - 0tik 20ra arteko zenbakiak, 40 (*berrogei*), 60 (*hirurogei*) eta 80 (*laurogei*).
 - *Ehun* eta bere multiploak: *berrehun*, *hirurehun*, *laurehun*...
 - *Mila*

- *Hiru eta lau* zenbatzaileek, zenbakiak izendatzeko erabiltzen ez direnean, deklinabide berezia dute:
 - Mugagabeen, bokalez amaituriko hitzen antzera: *hiruk, hiruri, lautan, lautatik...*
 - Pluralean, *r* behar dute: *hirurak, hirurei, lauretan, lauretatik...*
- *300 eta 400* zenbakiak *hirurehun* eta *laurehun* idazten dira. Baina *600, 700, 800 eta 900* zenbakien kasuan, *-r-* hori galdu egiten da idatzizko formetan: *seiehun, zazpiehun, zortziehun* eta *bederatziehun*.

 *seirehun*

 *zazpirehun*

 *zortzirehun*

 *bederatzirehun*

- 21etik 99ra hitz batez baino gehiagoz idazten diren zenbakietan, juntagailua lehenengo hitzari lotzen zaio, baina *-ta* bihurtuta:

✓ hogeita bost, hirurogeita zazpi, laurogeita hamazazpi...

✗ hogei eta bost

✗ hogeitabost

- *Ehun* zenbakitik aurrera, *eta* partikula bananduta eta osorik idazten da: *ehun eta bi, berrehun eta hamairu...*

- *Mila* zenbakitik gora *eta* partikula kendu behar da ondoren datozen ehunekoetan ere agertzen bada: *mila eta bostehun*, baina *mila bostehun eta zazpi*.

✗ *mila eta bostehun eta zazpi*

- Substantibo lexikalizatu gisa erabiltzen direnean, hitz bakarrean idazten dira, eta pluralean joan daitezke:
munduko hamalau zortzimilakoak
- Lau zifratik gorako zenbaki osoak hirunaka antolatu daitezke eskuinetik hasita, taldeen artean puntu bat txertatuz.
- Zenbakiak hiru digituko taldeetan bereiztea aukerakoa da zenbakiak kantitatea adierazten duenean, baina punturik ez da erabiltzen kasu hauetan:
 - Milatik gorako urteak izendatzen dituzten zenbakietan.
 - Bertso-zenbakiak edo orrialdeak adierazten dituzten zenbakietan.

- Lege-testuak edo horien banaketak zenbatzean.
 - Hiri-bideen, posta-kodeen edo posta-atalen zenbakietan.
 - Kode moduan jokutzen duten zenbaki batzuetan, hala nola nortasun-agirikoa edo telefono-zenbakia.
- Zenbaki dezimaldunetan, koma erabiltzea gomendatzen da zati osoa hamartarretik bereizteko (inoiz ez apostrofo bat):

 35'87

 35,87

b) Ordinalak (hurrenkariak)

Ordenaturik dauden elementuen artean elementu jakin bat zenbatgarrena den adierazteko erabiltzen dira.

- Saileko lehen kidea honela eman daiteke: *lehen, aurren, lehenengo, lehenbiziko, lehendabiziko...*
- Letraz idazten direnean, zenbaki kardinalari *-garren* atzizkia erantsiz lortzen dira.

- Zifraz idazten direnean, *-garren* atzizkiaren tokian puntua jarri behar da. Marratxorik erabili gabe erantsi behar zaio kasu-atzizkia:



3.ak, Filipe V.arekin



3.-ak, Filipe V.-arekin

- Ordinalaren *-garren* atzizkia aldiro eta beti adierazi behar da (letraz nahiz puntuz) elkarren segidan datozen zenbaki bati baino gehiagori dagokienean:



Ikus 2. eta 3. atalak



Ikus 2 eta 3. atalak

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

